Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Eugenia Ortiz de Zarate Galdos

Legutio, Araba (1919-2009)

Aurkibidea

Biografia

Legutioko Urrunaga auzoan jaio zen eta bertan bizi izan da ia bizi osoan. Aita urrunagakoa bertakoa zuen eta ama, berriz, Goiaingoa. Lau anai-arreba izan zituen. Gurasoak gazterik hil zitzaizkion; aita ezagutu ere ez zuen egin eta ama berak 8 urte zituela hil zen.1943an Andres Biterirekin ezkondu zen eta bost seme-alaba izan zituzten. Taberna izan zuten etxean.

Zintak

LEG-016

- **Proiektua**: Arabako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Data**: 2000-02-20
- **Iraupena**: 5 min
- **Euskarria**: Audio Analog

LEG-018

- **Proiektua**: Arabako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Data**: 2000-02-27
- **Iraupena**: 25 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Emalea**: García Uriarte, Imanol

LEG-032

- **Proiektua**: Arabako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barrutieta, Xabier
- **Data**: 1984-01-01
- **Iraupena**: 31 min
- **Euskarria**: CD
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea**: García Uriarte, Imanol

LEG-044

- **Proiektua**: Arabako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Data**: 2001-04-20
- **Iraupena**: 15 min
- **Euskarria**: Mini Disc
- **Emalea**: García Uriarte, Imanol

Pasarteak

1. Urrunaga auzoan aldaketak urtegia egin zenetik

- **Erref**: LEG-032/002
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:01:00. **Bukatu**: 00:02:07

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Urtegia egin zen sasoian 28 familia inguru bizi omen ziren Urrunaga auzoan. Gerora bertakoak gutxitu eta kanpokoak ugaritu egin direla komentatzen dute. Garai hartan auzoko gehienek zekiten euskaraz. Baina kanpoko jendea etorri zen urtegia egin zenean, eta euskara galduz joan zen.

2. Eskolan eta elizan beti gaztelaniaz

- **Erref**: LEG-032/007
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:05:05. **Bukatu**: 00:06:46

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Urrunagan bertan zuten eskola. Eskolan beti gaztelaniaz ikasi omen dute, baina ez zuten zigorrik izaten euskaraz egiteagatik. Maisuak berak ere euskara pixka bat ikasi omen zuen. Apaizak ere ba omen zekien euskaraz, baina mezak gaztelaniaz izaten ziren. Gaur egun mezak euskaraz eta gaztelaniaz ematen direla Gasteizen aipatzen dute.

3. Seme-alabek euskara ez ikastearen arrazoia

- **Erref**: LEG-032/012
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:09:20. **Bukatu**: 00:09:55

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Seme-alabek ez omen dute euskaraz ikasi, beraiek ere gaztelaniaz hitz egin izan dutelako gehienean. Taberna zutenez, kanpoko jendea izaten zuten beti etxean, eta agian hori izan daitekeela arrazoia diote.

4. Euskalki batetik bestera aldea lexikoan

- **Erref**: LEG-032/016
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:13:25. **Bukatu**: 00:14:35

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Euren euskarak Bizkaikoarekin antzekotasun handiagoa duela diote Gipuzkoakoarekin baino. Andres gaztetan asko ibili omen zen batera eta bestera eta ez duela arazorik beste euskalki batzuk ulertzeko dio. Batetik bestera lexikoan dauden ezberdintasunak.

5. Sorginen inguruko kontuak

- **Erref**: LEG-032/022
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:19:44. **Bukatu**: 00:21:35

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:
"Sorginen ermita" deitzen diotenaren inguruko istorioa. Sorginen inguruko istorioak.

6. Urrunagako urtegia eta inguruetako errekak

- **Erref**: LEG-032/028
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:27:20. **Bukatu**: 00:29:05

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:
Baserri batzuk urpean geratu ziren urtegia egin zenean. Urtegia Urrunagako lurretan egina dago. Batzuek Urrunagako urtegia esaten diote eta beste batzuek Santa Engrazia. Erreka ei da Santa Engrazia. Inguruetan hiru erreka ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-13

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com